

Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarritz

José Ignacio Hualde
University of Illinois

Arbizuko (Nafarroa) euskarak dituen bilakabide fonologiko berezi batzuei buruzko behin-behineko datu akustiko batzuk eskaintzea da artikulu labur honen helburua. Hala [b] herskari ahostun epentetikoa nola bokal arteko [β] izatea da euskalki honen ezaugarri fonologiko deigarriena. Oposaketa fonologiko hau nahikoa harrigarria da, euskaraz, gaztelaniaz bezala, trabakari ahostun jarraikor/ez-jarraikor alternantzia nahikoa gertakari fonetiko bakana baita (ikus Mascaró 1983, 1991, besteak beste). Euskalki honen beste ezohiko berezitasun batzuk ere dokumentatzen dira hemen: lehena, bokalaren luzeran oinarrituriko oposaketaren garapen garrantzitsua; bigarrena, sabaikari-aurreko frikari ahostun bat izatea, hitz bakar batean bada ere, hots, [udʒ] hitzean, beste euskalkietako [ur] 'ura' hitzean alegia.

The purpose of this short paper is to offer some preliminary acoustic data for some unusual phonological developments in the Basque variety spoken in Arbizu, Navarra. The most striking phonological feature in this dialect is the existence of an epenthetic voiced stop [b], which contrasts with [β] in the intervocalic environment. This phonological contrast is quite unexpected, given the fact that the alternation between continuant and noncontinuant voiced obstruents in Basque, like in Spanish, is generally taken to be a rather low-level phonetic phenomenon (see Mascaró 1983, 1991, among others). Other uncommon properties of this dialect, which are documented here, are the existence of a well-developed contrast in vowel length, and the presence of a voiced prepalatal fricative in one single item, the word for 'water', [udʒ], which in other dialects is [ur].

0. Sarrera*

Lantxo honen helburua Arbizuko euskaraz aurkitzen diren zenbait hizkera-soinu berezi aztertzea da, datu fonetiko batzuk emanez. Hiru arazo izango ditugu kontuan: bokalen arteko /b/ herskaria, bokal luzeak eta *ur* hitzean agertzen den afrikatu ozena. Bokalen arteko /b/ herskaria (ingurune honetan [β] jarraikorarekin kontrastatzen dena), antza denez, Arbizun eta Lakuntzan baizik ez da erabiltzen (Zuazo 1995). Aldiz, bai bokal luzeak eta bai *ur* hitzaren soinu berezia alboko herrietan ere aurkitzen dira.

Datu akustikoak ateratzeko bi emakumezko gazteri egindako grabaketa bat erabili dut.¹ Grabaketa Ricardo Gómezek egin zuen Gasteizko EHUko Fonetika Laborategian. Hitzunei gaztelaniazko esaldi idatzi batzuk eman genizkien, haiek Arbizuko euskaraz esateko mikrofonoaren aurrean. Grabatutako esaldien azterketa akustikoa egiteko Signalize izeneko programa erabili dut Macintosh Centris 660 Audio-Visual batekin.²

1. [b] vs. [β]

Fonetikaren aldetik, Arbizuko euskarak daukan ezaugarri nabarmena bokalen arteko [b] herskaria da. Jakina denez, euskaraz, gaztelaniaz eta inguruko beste hizkuntza batzuetan

bezala, /b,d,g/ fonema herskari ozen edo ahostunek [+jarrai] diren [β, ð, γ] alofonoak dituzte ingurune fonologiko askotan. Bereziki bi bokalen artean, [β, ð, γ] soinuak aurkitzen ditugu beti ahoskera normalean: *alaba da* [alaβaða], *egon* [eγon]. Arbizuko hizkeran ere horrelaxe da, baina salbuespen batekin; hots, /u _ + V/ ingurunean ezartzen den kontsonantea [b] herskaria da, [-jarrai].

Bokalen arteko [b] segmentu epentetikoa flexiozko atzizkiekin ezartzen da izen erroa /u/-z bukatzen denean: /esku+a/ *eskuba*, /esku+ak/ *eskubek*. Deklinabidean ez ezik, gonbaratiboan ere agertzen da: /alu-oo/ *aluboo* 'aluago'. Aditz forma jokatu batzuetan ere aurkitzen dugu kontsonante epentetiko hau: *duzubie* 'duzue', *dubie* 'dute'. Normala denez, eratorpen-atzizkiekin, aldiz, ez dago epentesirik: *arbizuarra*.

/b/ epentetikoak badu bere ordezkari sabaikaria, [j], /i/ baten ondoren sartzen dena: *mendiya*, *mendiyek*, *berriyoo* 'berriago'. Segmentu hau ere herskaria da. [j]-ren banaketa, hala ere, [b] epentetikoarena baino zabalagoa da, ingurune monomorfemikoan ere agertzen baita: *iyendia* 'igandea', *iyotu* 'ehotu'.³

Euskaraz ohikoa den bezalaxe, azpiko [+goi] bokal baten atzean baizik ez dira sartzen segmentu epentetikoak. Erdiko bokalak [+goi] bihurtzen

* Mila esker Gorka Elordieta, Iñaki Gaminde, Ricardo Gómez eta Koldo Zuazori artikulu honen bertsiio bati egindako zuzenketa eta oharrengatik. Eskerrik asko Ricardo Gómezi ere grabaketarekin laguntzeagatik.

1. Aitziber Etzanobe Arrieta (21 urte) eta Laura Flores Urriza (20 urte). Nire esker ona bioi.

2. Horrez gain, hogeit hamar minutuko elkarrizketa libre bat grabatu genuen; baina ikerketa akustikorako datuak ateratzeko ez dut erabili.

3. Dena den, morfema baten barnean agertzen denean ere, herskari sabaikaria epentesi baten ondorioa da; behintzat diakronikoki. Ingurune monomorfemikoan epentesia ez da guztiz erregularra. *Maiatza* [majetsa], *oihu* [oju] eta beste hitz batzuetan frikari edo hurbilkari sabaikari bat aurkitzen dugu, nahiz eta antzeko adibide batzuetan herskari epentetikoa kausitu: *leiho* [leiho].

dira ingurune berean, baina azaleko goiko bokal hauek ez dute epentesirik eragiten: /baso+a/ *basua*, /seme+a/ *semia*.

Arbizuko [b] herskari epentetikoa nahikoa fenomeno harrigarria da; normalean euskaraz, baita Arbizuko euskaraz ere, bokalen artean /b, d, g/-ren alofonoak segmentu jarraikor ahulak direnez gero. [b,d,g] eta [β, ð, γ] alofonoen banaketa hain orokorra eta azalekoa izaki, ez genuke salbuespenik izatea espero beharko. Baina Arbizuko hizkeran [b] eta [β] soinuaren arteko oposaketa fonologiko bat dugu.

Lourdes Oñederrak (1993), nire 1991ko liburuari egindako iruzkinean, fenomeno honek fonologiarako duen garrantzia aipatu zuen eta hobeto sakondu beharra azpimarratu. Nik dakidanez, fenomeno honen lehendabiziko aipamena neure 1988ko tesian agertzen da. Baina, geroago, Koldo Zuazok (1995) baieztatu du. Ricardo Gómezek, Joseba Lakarrak eta EHUko beste irakasle batzuek ere baieztatu dute, baina ez izkribuz. Dena den, datu akustikoak ematea beharrezkoa dela iruditzen zait. Ikerketa sakonago bat beste momentu baterako utzirik, behin-behineko datu batzuk aurkeztu nahi ditut hemen.

Irudietan esaldiaren soinu-uhina eta espektrograma erakusten dira. 1A. irudian, [bu:baða] ‘burua da’ adibidea erakusten da. Adibide honetan herskari ozen eta frikari ozenen arteko desberdintasuna oso garbi ikusten da. Bi *b* segmentuak, hasierakoa eta bokalen artekoa, [b] herskariak dira, [-jarrai]. Aldiz, *d* segmentua [ð] [+jarrai] da eta bokalen antzeko formante garbiak erakusten ditu. 1B eta 1C irudietan adibide bereko zati handituak ikus daitezke, bokalen

arteko [b] [-jarrai] eta [ð] [+jarrai] segmentuak xehetasun gehiagoz erakutsiz.

2. irudian kontraste bera erakusten da, [eskubaða] ‘eskua da’ adibidea erabiliz.

[b] epentetikoa alde batera utziz, /b,d,g/ fonemen [+jarrai] eta [-jarrai] alofonoek gaztelaniaz eta beste euskalkietan daukaten banaketa berbera dute Arbizuko hizkeran. Bokalen artean, beraz, [β, ð, γ] aurkitzen ditugu. Beste euskalki askotan bezala, Arbizun alofono hauek oso frikari ahulak dira, hurbilkariak dira, frikariak baino gehiago, eta erortzeko joera garbia erakusten dute. Hain zuzen, Arbizun soinu hauek eta [r] guztiz galdu dira hitz askotan bi bokalen artean (ikus Hualde 1991b). Badira morfologikoki baldintzatuta dauden erorketa batzuk ere. Adibidez, *da*-ren kontsonantea bokalez bukatzen den partizipio baten atzean galtzen da: *eldu da* > *eldu aa*, baina bestela ez: *goorra da*. 3. irudian /alaba da/ [alaβaða] erakusten da. Ikusten den bezala, [β] eta [ð] segmentuek oso formante garbiak dauzkate, ia bokalenak bezain markatuak.

4. eta 5. irudiek bikote kuasi-minimo bat erakusten dute. Bi irudi hauetan [b] eta [β] soinuak kontrastatzen dira ingurune fonetiko berean. 4. irudiak /kuba+n dau/ [kuβenda:w] ‘Cuban dago’ adibidea erakusten du eta 5.ak /esku+a+n dau/ [eskubenda:w] ‘eskuan dago’. Inguruneko segmentuak berdinak dira bi adibideetan, beraz. 4. adibidean, kontsonante ezpainbikoa erroarena da eta [+jarrai] bezala gauzatzen da. 5. adibidean, aldiz, [b] segmentua kontsonante epentetikoa da eta [-jarrai].

6. irudiak kontsonante epentetiko sabaikaria, [j], erakusten du. Adibidea /mendi+a da/ [mendi_ja^ɔa] da. Espekrograma eta soinu-uhina ikusiz, nahikoa garbi dago kontsonante epentetiko hau ere [-jarrai] dela.

Kontsonante baten epentesia / [+goi] ___ + V/ ingurunean hizkera askotan gertatzen da. Banaketa geografikoa kontuan hartuz, mota honetako arauak dauzkaten bi eremu bereiz ditzakegu, bat ekialdean eta beste bat mendebaldean.

Ekialdetik hasiz, behenafarreraren eremuko zati batean irristari sabaikari bat sartzen da erroa /u/-z bukatzen denean: *esku*, *eskuya*. Erroa /i/-z bukatzen bada, aldiz, ez dago epentetiko: *mendi*, *mendia*. Egoera hau Etxeparerengan ere aurkitzen dugu (baita Leizarragaren izkribuetan ere, Ricardo Gómezek gogorarazten didanez). Zubereraz eta behenafarreraren beste hizkera batzuetan, sekuentzia hauek sinplifikatu egin dira: *eskuya* > *eskia*. Beste tipo batzuk ere aurkitzen dira behenafarreraren: *esküa*, *burüa* eta *esküya*, *burüya* (Bonaparte 1869 [1991: 242, 2. ohar.], Lafon 1937)⁴. Bidankozeko erronkarieraz, /u+a/ taldeak [jwa] ematen zuen metatesiz (Michelena 1954 [1988: 283]): *becatiua* [bekatjwa] *Espiritu saintiua* etab. (ikus Bonaparte 1991, Prudencio

Hualde eta Mariano Mendigacharen testuak).⁵

Baina hedatuen dagoen epentesi-motan, segmentu epentetikoak ezkeralderako bokalaren ahoskunea du. Bizkai-Gipuzkoetako alderdi zabal batean eta baita Nafarroako hizkera batzuetan ere sabaikari (edo aurre-sabaikari) bat sartzen da /i ___ (+) V/ ingurunean. Gipuzkoako zati batean eta Nafarroan, segmentu epentetikoa frikari sabaikari ahostuna da, agian batzuetan herskaria, Arbizun bezala: *mendiya*. Gernikaldean eta Bizkaiko beste hizkera askotan, frikari sabai-aurrekoa aurkitzen dugu: *mendi_ze*; eta aurre-sabaikari hau ahoskabetu egin da Markinaldean eta Deba arroan: *mendixa* [mendij a]. Aldiz, /u ___ + V/ ingurunean, epentesia askoz mugatuagoa da mendebaldean. Gaur egun epentesi hau Gipuzkoako iparrekialderako hizkera batzuetan eta Sakanan aurkitzen da,⁶ baina, antza denez garai batean askoz hedatuagoa zegoen. Bonaparteren garaian, Markinaldean eta Bizkaiko beste eskualde batzuetan zehar *eskuba* eta antzeko formak aurkitzen ziren, Bonapartek bildutako testuei kasu egiten badiegu. Gaurregun, aldiz, *esku(e)* aurkitzen dugu Markinaldean. Duela guti Zuazok (1995) Burundako hizkerak ikertu ditu. Eskualde honetan epentesi-araua mantentzen da /u/-z

4. Iñaki Gamindek esaten didanez, *eskuya* eta *eskwiya* modukoak Ezpeletan, Uztaritzen, Milafrangan eta Beskoitzen erabiltzen dira eta *esküa* Hazparnen, Lekornen eta Makean aurkitzen da gaur egun.

5. Metatesi gabeko formak ere aurkitzen ditugu Erronkariko zenbait testutan. Horrezaz gain, baziren beste aldaera batzuk euskalki honetan (ikus Gómez 1991).

6. Zehazkiago, Gamindek (gutunez) *eskuba* tankerako formak Andoain, Irura, Asteasu, Larraul, Ibarra eta Beizaman aurkitu ditu, Gipuzkoan; eta esaten didanez, Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikokoaren arabera, hurrengo herrietan ere agertzen dira: Bidania, Hernani, Donostia (*buruba*) eta Urrestillan (*dirube*). Dena den, hauetariko leku gehienetan, epentesia zaharrek baizik ez dute egiten (Koldo Zuazo, gutunez). Nafarroan, epentesi-arau hau hobeto mantentzen da eta hurrengo herrietan aurkitu du Gamindek: Olazti, Altsasu, Lizarraga, Etxarri-Aranatz, Lakuntza, Iraneta, Arruazu, Dorrao eta Unanuan. Baita, aukerazko arau bezala, baita Urdiain, Iturmendi eta Bakaikun ere. Azkenik, Uhartean *eskuwe* aurkitu du Gamindek.

bukatzen diren erroekin. Baina, diru-
dienez, hizkera hauetan (Burundan,
Ergoienan eta Etxarri-Aranatzen)
ezpainbiko ozen epentetikoa bokalen
arteko alofono arrunta da, hau da,
frikaria edo hurbilkaria: [eskuβa].
Zuazoren datuen arabera, [eskuba]
tipoko formak Arbizun eta Lakuntzan
baizik ez dira aurkitzen.⁷

2. Bokal luzeak

Bokal luzeak ez dira ohikoak euska-
raz. Noski, euskara batuaz hitzun
askok bokal luze edo geminatuak
erabiltzen ditu *zahar, mehe, mihi,*
ohore, zuhur eta antzeko hitzetan;
baina tokian tokiko hizkera gehienetan
edo, nahi bada, euskara “tradiziona-
lean”, bokal hauek ez dira ohikoak.
Zenbait eskualdetan, aldiz, bokal
luzeak aurkitzen ditugu ingurune jakin
batzuetan. Arbizun, bokalen arteko
kontsonante batzuen galeraren ondo-
rioz bokal luzeak sortu dira (ikus
Hualde 1991b). Hitz askotan [β, ð, γ,
r] kontsonanteak galdu dira bi bokalen
artean; baita /-n/ ere aditz partizipioen
geroaldiko forman. Batzuetan bokal
luzeak sortu dira, lehen banatuta
zeuden bi bokalak berdinak zirelako,
buru > buu adibidean bezala. Baina bi
bokalak desberdinak zirenean ere,
askotan asimilazio osoa gertatu da,
bokal luze bat sortuz: *egon > oon*.
Batzuetan, gainera, [+goi] bokal bat
irristari bihurtu da, alboko bokala
luzatuz: *lagun > laaun* [la:wn]. Antzeko
bilakaerak inguruko beste herrietan
ere aurkitzen ditugu (ikus Zuazo 1995,
Karasatorre et al. 1991). Beste eskual-
de batzuetan ere aurkitzen ditugu
bokal luzeak, hala nola Oñatin eta
Gipuzkoako Goierriin, baina hemen bo-

kal luzeen jatorria ez da guztiz berdina
eta beste ingurune batzuetan ere
sortzen dira bokal luzeak.

Arbizuko bokal normal eta luzeen
arteko bereizkuntza erakusteko bikote
minimo bat dugu 7. eta 8. irudietan.
Adibideak *esan du* (7. irud.) eta *esaan*
du (8. irud.) ‘esanen du’ esaldiak dira.
7. irudian, [+behe] bokalaren iraupena
76.29 ms.-koa da eta 8.ean 176
ms.-koa. Esaldi hauetan neurtutako
bokalak silaba itxian daude eta
atonoak dira, azentua esaldiaren
lehenbiziko eta azken silabetan jartzen
baita (*ésan dú, ésaan dú*). Silaba ireki
edota azentudunetan bokalaren
iraupena handiagoa izango dela
espero dezakegu. 1. irudiaren (*buuba*)
[u:] luzeak 191.81 ms irauten du eta 4.
irudiaren (*kuben*) [u] laburrak 102.40
ms, gutti gora-behera (kasu honetan
neurketa zehatza zaila da [u] bokala
ondorengo [β] segmentuarekin batzen
da-eta).

3. [dʒ]

Bonaparte (1869 [1991: I, 240, 2.
ohar.]) oharu zen Arbizun eta alboko
beste herri batzuetan (Etxarri-Aranatz,
Lizarragabengoa eta Lizarraga aipa-
tzen ditu, Arbizuz gain) soinu berezi
bat entzuten dela «dans le mot *ura*
'l'eau', au défini». Egia esan, soinu
hau forma mugatuetan ez ezik, muga-
gabean ere agertzen da: *ur* eta *ura*
kontsonante berberarekin ahoskatzen
dira. Bestaldetik, hala ere, segmentu
hau hitz honetan baizik ez da ager-
tzen. Behintzat, Arbizuko hizkerarako
bildu dudan hiztegi-zerrenda luzexkan
ez dut beste inon aurkitu.

7. Koldo Zuazok esaten dit Arruazuko hizkeran ere [b] herskariaren aztarnak aurkitzen direla; baina fenomenoak ez omen da Arbizun bezain sistematikoa.

Bonapartek, aipatu lekuan, esaten digu soinu berezi hau «intermédiaire entre 'd' roncalais et 'z' doux italien en *zelo*» dela; hau da, afrikatu ozen horzkari edo hortzobietakoa, agian dardarkari bigunaren antzeko zerbaitekin. Ez dago dudarik afrikatua eta ozena dela. Ahoskunea dela eta, aldiz, nik neuk sabaikari-aurreko bezala definitu dut (Hualde 1991a: 40) eta oraindik ere iruditzen zait definizio hori zuzena dela. Hau da, funtsean ingelesezko *j /dʒ/* da, nahiz eta ez guztiz berdina. Ingelesezko soinuak baino frikazio gehiago du. Frikapen-eremua zabalagoa dateke. Antz handiagoa du ingelesezko */dʒ/* fonemaren hitz bukaerako alofonoarekin (*fudge* hitzean, adibidez), hitz-hasieran agertzen denarekin baino. Soinu bera edo bederen berdintsua Bizkaiko hizkera batzuetan ere aurkitzen da, noski. Horixe da Lekeitioko */dʒ/uan da* bezalako adibide batean edo Gernikaldeko *esan /dʒ/oat* esaldian agertzen den soinua. Dena den, Bizkaiko hizkera horietan soinu afrikatu hau esaldiaren

hasieran edo [-jarrai] den kontsonante baten ondoren baizik ez da agertzen. Bokal baten ondoren frikaria dugu beti eta ez afrikatua: *Gorka [ʒ]uan da* (Lekeitio), *mendi[ʒ]e* (Gernika).

9. irudian, [udʒaða] 'ura da' esaldiaren espektrograma ikus daiteke. Afrikatuaren bi parteak, hersketa eta frikapena oso argi agertzen dira. Beste kontsonante baten aurrean afrikatu hau [ʒ] frikari bihurtzen da, ikus 10. irudia, *u[ʒ] berua*. Ziur asko, ahoskabe baten aurrean ahoskabetzen da, [ʃ] emanez, baina ez dut aztertu.

Arbizuar gazte batzuek [dʒ] soinua galdu dute, eta haren ordez [ʃ] erabiltzen dute beti. Behintzat, grabatutako bi hiztunetarikoa batek hala egiten du. Nire Arbizuko euskarari buruzko beste lanak idazteko izan nuen berri-emaileak (Xabier Arbizu), [dʒ] ahoskatzen zuen. Ez dakit, beraz, ze neurritan galdu den edo galtzen ari den soinu hau hiztun gazteen artean.

Aipamenak



- Bonaparte, L. L. (1869): *Le verbe basque en tableaux*, Londres [Berrarg. Bonaparte 1991].
- , (1991): *Opera omnia vasconice*, 4 lib. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Gómez, R. (1991): "Erronkarietarako dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa", in Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz, arg., *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, I, 375-426 (ASJU-ren gehigarriak 14), Donostia.
- Hualde, J. I. (1988): *A lexical phonology of Basque*, Doktoradutza tesia, University of Southern California, Los Angeles.
- , (1991a): *Basque phonology*, Routledge, Londres eta New York.
- , (1991b): "Sincronía y diacronía de las vocales geminadas en vasco", in Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz, arg., *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, I, 615-624. (ASJU-ren gehigarriak, 14), Donostia.
- Karasatorre, R., Erdozia, J. L., eta Ulaia E. (1991): *Etxarri-Aranatzko euskara eta Arañaz Elkarteko hiztegia* Altaffaylla Kultur Elkarte, Tafalla.
- Lafon, R. (1937): "Tendance à la palatalisation de la sonante u dans les parlers basques du nord-est", *Revue de Linguistique Romane* 13, 73-82.
- Mascaró, J. (1983): "Continuant spreading in Basque, Catalan, and Spanish", in Mark Aronoff eta R.T. Oehrle, arg., *Language sound structure*, 287-298, MIT Press, Cambridge - Mass.

———, (1991): "Iberian spirantization and continuant spreading", in Albert Branchadell et al., arg., *Catalan Working Papers in Linguistics 1991*, 167-179, Univ. Autònoma de Barcelona, Bartzelona.


Michelena, L. (1954): "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal", *Via Domitia* 1, 123-157, [Berrarg. in Michelena, L., 1988, *Sobre historia de la lengua vasca I*, 273-297 (ASJU-ren gehigarriak, 10), Donostia.

Oñederra, M. L. (1993): "Review of Hualde 1991a", *Phonology* 10, 158-162.


Zuazo, K. (1995): "Burundako hizkera", in Ricardo Gómez eta Joseba A. Lakarra, arg., *Euskal dialektologiako kongresua (ASJU-ren gehigarriak, 28)*, Donostia.




1c irudia




2 irudia




3 irudia




4 irudia




5 irudia



6 irudia




7 irudia




a = 76'29 ms.

8 irudia



a = 176'00 ms.

9 irudia



10 irudia

